**EUZKO ABERTZALEAK - NACIONALISTAS VASCOS TALDEKO LEGEBILTZARKIDE EIDER MENDOZA LARRAÑAGA ANDREAK ETXEKO ENPLEGUARI BURUZ IDAZKI BIDEZ EGINDAKO GALDERAREN ERANTZUNA**

**LANBIDEk, gaur egun, bitartekotza-lanak egiten al ditu etxeko enpleguan?**

**Erantzuna baiezkoa bada, zer aukera eskaintzen ditu bitartekotza-lana areagotzeko etxeko enpleguaren alorrean?**

Lanbidek, Langai/Euskal Lan Zerbitzuaren izena duen irabazi-asmorik gabeko agentzia pribatuaren irudiaren bitartez, (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren abenduaren 23ko 326/2003 Dekretu bidez arautu zen) lan-arloko bitartekotza-lanak egiten ditu 1996az geroztik gaur egun arte.

Etxeko zerbitzuaren eremuari dagokionez, Lanbidek lan-merkatuan gauzatzen duen bitartekotzaren kudeaketari buruzko datu-basea kontsultatu ostean, kudeatutako enplegu-eskaerak eta eskaintzak, etxeko langilearen, etxez etxeko langilearen eta haur-zaintzailearen enpleguei buruzkoak, aztertu dira, lanbide horiek direlako legebiltzarkideak egin duen eta idazki honen bitartez erantzun nahi den galderan eskatzen den informaziotik hurbilen dauden lan-profilak.

Guztira, etxeko enpleguko profil horien 8.045 enplegu-eskaera daude aktibo, hau da, 6.185 pertsonen eskaera (pertsona batek enplegu bat baino gehiago eska dezake).

Enplegu-profil horren ezaugarri nabarmenenak honako hauek dira: enplegu hori betetzen dutenen feminizazioa handia da eta pertsona horien ehuneko handia atzerritarrak dira. Profil hori duten eskatzaile guztien % 95 emakumeak dira, eta 3tik ia 1 atzerritarra da, azken ehuneko hori

**RESPUESTA A LAS PREGUNTAS POR ESCRITO FORMULADAS POR DÑA. EIDER MENDOZA LARRAÑAGA , PARLAMENTARIA DEL GRUPO EUZKO ABERTZALEAK - NACIONALISTAS VASCOS, RELATIVAS AL EMPLEO DOMESTICO**

**¿LANBIDE ejerce actualmente labores de intermediación en el empleo doméstico?**

**En caso afirmativo, ¿qué posibilidades ofrece para el incremento de la labor de intermediación en empleo doméstico?**

Lanbide, mediante la figura de agencia privada sin ánimo de lucro bajo la denominación de Servicio Vasco de Colocación/Langai, regulada por el Decreto 326/2003, de 23 de diciembre, del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, viene desarrollando labores de intermediación laboral desde 1996 hasta el momento presente

Respecto al ámbito del servicio doméstico, una vez consultada la base de datos de gestión de la intermediación en el mercado laboral de Lanbide, se han analizado las demandas de empleo y las ofertas gestionadas relativas a los empleos de empleado de hogar, asistente domiciliario y cuidador de niños por ser los más cercanos al perfil ocupacional sobre el que se solicita información en la pregunta parlamentaria a la que trata de dar respuesta este escrito.

En total están activas 8.045 demandas de empleo de estos perfiles de empleo doméstico correspondientes a 6.185 personas (una persona puede demandar más de un empleo).

Como características sobresalientes de este perfil de empleo desatacan la fuerte feminización y el alto porcentaje de personas extranjeras que lo desempeñan. Del total de personas demandantes

txikia da kontuan hartzen badugu, 2009ko iraileko datuaren arabera, Etxeko Erregimenean Gizarte Segurantzan afiliatuta daudenen % 48,5 atzerritarra dela; termino absolutuetan 6.867 atzerritar daude Etxeko Erregimenean afiliatuta dauden 13.933 pertsonaren gainean.

**Lanbiden erregistratutako enplegu-eskaerak**

| | atzerritarrak | bertakoak | Guztizko eskatzaileak |
|---|---|---|---|
| Etxerako laguntzailea | 1.291 | 2.859 | 4.150 |
| Etxeko langilea | 1.177 | 993 | 2.170 |
| Haur-zaintzailea | 563 | 1.162 | 1.725 |
| **Guztizko eskaerak** | **3.031** | **5.014** | **8.045** |
| **Guztizko eskatzaileak** | **1.995** | **4.190** | **6.185** |

Eskaintzaren zatian, azken urte honetan, 2008ko irailetik 2009ko irailera bitarte zenbatuta, 246 eskaintza daude, eta eskaintza horietan 334 lanpostu eskatzen dira, hots, eskaintzen % 2,5 eta Lanbidek aldi horretan kudeatutako postuen % 2,2. 372 hautagai bidali dira.

| **2008/09/30etik 2009/09/30era bitarte Lanbidek kudeatutako eskaintzak** | Eskaintzak | Lanpostuak | Bidalitako hautagaiak |
|---|---|---|---|
| Etxerako laguntzailea | 98 | 180 | 166 |
| Haur-zaintzailea | 37 | 43 | 65 |
| Etxeko langilea | 111 | 111 | 141 |
| **Guztizko eskaintzak** | **246** | **334** | **372** |

Datu horietatik ondorioztatzen da etxeko lanean enplegu-eskaera handia dagoela, baina eskaintza oso txikia dela; horren ondorioz, laneratze-ratioa oso txikia da.

Gure ustez, gertakari hori alderdi askok azaltzen dute, eta horien artean honako hauek nabarmenduko genituzke:

- Lehenik eta behin, sektore horretan ezkutatutako lanak garrantzi handia izatea. Jakin badakigu etxeko zerbitzuaren inguruan legez eratuta

de estos perfiles el 95% son mujeres y casi 1 de cada 3 son extranjeras, porcentaje este último bajo si consideramos que el 48,5% de los afiliados a la Seguridad Social en el Régimen de Hogar son extranjeros, según el dato de septiembre de 2009, en términos absolutos contabilizamos 6.867 extranjeros sobre un total de 13.933 afiliados en el Régimen de Hogar.

**Demandas de empleo registradas en Lanbide**

| | extranjeros | autóctonos | Total demandantes |
|---|---|---|---|
| Asistente domiciliario | 1.291 | 2.859 | 4.150 |
| Empleado de hogar | 1.177 | 993 | 2.170 |
| Cuidador de niños | 563 | 1.162 | 1.725 |
| **Total demandas** | **3.031** | **5.014** | **8.045** |
| **Total personas demandantes** | **1.995** | **4.190** | **6.185** |

En la parte de la oferta durante el último año, contando desde septiembre de 2008 a septiembre de 2009, se contabilizan 246 ofertas en las que se piden 334 puestos de trabajo, que suponen el 2,5% de las ofertas y el 2,2% de los puestos gestionados por Lanbide en este periodo. Se han enviado 372 candidatos.

**Ofertas gestionadas por Lanbide del 30/09/2008 a 30/09/2009**

| | Ofertas | Puestos | Candidatos enviados |
|---|---|---|---|
| Asistente domiciliario | 98 | 180 | 166 |
| Cuidador de niños | 37 | 43 | 65 |
| Empleado de hogar | 111 | 111 | 141 |
| **Total ofertas** | **246** | **334** | **372** |

De estos datos se deduce que existe una fuerte demanda de empleo en trabajo doméstico para una oferta muy reducida, lo que nos lleva a un ratio de inserción muy bajo.

Entendemos que son muchos los factores que explican este hecho entre los que destacaríamos:

- En primer lugar el fuerte peso del trabajo sumergido en este sector. Es sabido que el empleo legalmente constituido en

dagoen enplegua sektore horretan mugitzen den guztizko enpleguaren icebergaren tontorra besterik ez dela.

- Enplegu-emaileek etxeko langileak berenganatzeko sare informalak erabiltzen dituzte batez ere, eta sare horietan oso garrantzitsuak dira konfiantzako pertsonek hautagaiei buruz egiten dituzten zuzeneko erreferentziak eta balioespenak.

- Lanbideren bitartekotzaren kudeaketak profil kualifikatuetarako joera du, prestakuntza-zentroekin harreman handiagoa duelako.

Azkenik, esan behar da Lanbidek ez duela izapide berezirik egiten etxeko zerbitzuaren jardueran bitartekotza-lana indartzeko; izan ere, ez du izapide berezirik egiten bere jarrera gainerako sektore ekonomikoetan indartzeko.

torno al servicio doméstico es sólo la punta del iceberg del total de empleo que se mueve en el sector.

- La forma preferida de captar trabajadores domésticos por parte de los empleadores es a través de las redes informales en las que las referencias directas y valoraciones de los candidatos realizadas por personas de confianza cobran especial relevancia.

- La gestión de intermediación de Lanbide esta sesgada hacía perfiles cualificados por su mayor contacto con centros formativos.

Por ultimo cabe reseñar que Lanbide no realiza ninguna diligencia especial encaminada a reforzar su labor de intermediación en la actividad de servicio doméstico, ya que tampoco las realiza para reforzar su posición en el resto de sectores económicos.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 18a
Vitoria-Gasteiz, a 18 de noviembre de 2009

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILBURUA
LA CONSEJERA DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

Gemma Zabaleta Areta